

Etorkizuneko irakasleen ikuspegi eta identitate linguistikoak: hizkuntza-erronkak prospektiban

Ikertzailea: Mikel Gartziarena eta Artzai Gaspar

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU), Hezkuntza,
Filosofia eta Antropologia (Donostia)

Harremanetarako: mikel.gartziarena@ehu.eus

METODOLOGIA

Ikerketaren izaera: esploratzailea eta deskribatzailea.

Ikerketa mistoa: kuantitatiboa (galdetegiak, $N = 309$) eta kualitatiboa (talde-elkarrizketak, $N = 5$ talde elkarrizketa; $N = 30$ partaide).

Ikerketa-galdera:

Zein dira etorkizuneko irakasleek dituzten usteak eta jarrerak hizkuntzekiko, eurek dituzten **zailtasun-, erabilgarritasun-, garrantzi- eta identifikazio-mailekiko?**

Alor kuantitatiboa: online-galdetegiak



Lehen eta Haur Hezkuntzako irakasleen irakas-usteak eleaniztasunarekiko

3.- Eleaniztasuna

*19. Balora itzazu ondorengo baieztapenak zure adostasun-mailaren arabera:

	1. Erabat kontra	2. Kontra	3. Ez alde ez kontra	4. Ados	5. Erabat ados
-Eleanitzek errazago ikasten dute, erraztasun kognitiboak dituztenez.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
-Eleaniztasunak hizkuntzaren garapen berantiarra ekar dezake.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
-Eleaniztasunak identitate-arazoak sor ditzake.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
-Eleaniztasunak ikaslearen eskola-porrota ekar dezake.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
-Elebidunak erraztasun handiagoa dauka hirugarren hizkuntza ikasterakoan.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
-Ikasle eleanitzak ezin ditu hizkuntzak elkarrekin nahastu.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
-Hirueletasunak (euskarak, espainolak eta ingelesak/frantsesak) arriskuan jartzen du hizkuntza gutxituaren iraupena.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
-Hizkuntzak zenbat eta lehenago ikasi, orduan eta arrakasta handiagoa.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
-Onuragarria da hiru hizkuntzak klase eta ikasgai berean tartekatzea.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
-Euskara baino erabilgarriagoak diren hizkuntzak irakas daitezke.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
-Hirugarren hizkuntza sartzeak kalte egiten dio kostu egiten zaion ikasleari.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>

<-Aurrekoa Hurrengoa->

50%

- Sorkuntza eta datu-jasotzea: *Encuestafácil* programa.
- Ikerketa gidalerroak: Etika batzordea (UPV/EHU).
 - IZ: M10_20123_089.
- Parte-hartzaileak: 309 Haur eta Lehen Hezkuntzako gradu ikasleak.
 - Hezkuntza eta Kirol Fakultatea (UPV/EHU, Arabako Kanpusa)
- Berariaz sortutako online-galdetegia (33 item; 4 esku arteko ikerketarako).
 - Analisi deskribatzaileak (SPSS 29. edizioa).
- Likert eskala itemak: (1: Oso txikia; 5: Oso handia).
 - Onarpen- edo -bat-egite maila itemarekiko.

Alor kualitatiboa: talde-elkarrizketak



- 5 talde-elkarrizketa Haur eta Lehen Hezkuntza graduetako ikasleekin (UPV/EHU, Arabako Kanpusean).
 - 6 partaide bakoitzean; N = 30.
- Talde-elkarrizketa: erdigidatuak eta erdiegituratuak.
 - Ikerlaria: bigarren mailako moderatzaile gisa (gai-jartzailea).
 - Alorka banatutako galdera-bateria moldagarria).
 - 60-75'
- Partaideak erabat anonimizatuak eta kodetuak.
 - Transkripziorako *DSS Standard* eta datu-analisietarako *Atlas.ti*.
 - Etika gidalerroak (UPV/EHU, IZ: M10_20123_089).

EMAITZAK


(bis) Ikerketa-galdera:

Zein dira etorkizuneko irakasleek dituzten usteak eta jarrerak hizkuntzekiko, eurek dituzten **zailtasun-, erabilgarritasun-, garrantzi- eta identifikazio-mailekiko?**

Hizkuntzak ikasteko zailtasun-maila (%)

Emaitzak

**Batez bestekoa
1-5 artean**



Hizkuntzak ikasteko zailtasun-maila


P2: Zailtasunik handienak ingelesarekin, ez dut sekula ongi ulertu. Ez duzu ongi lantzen eta oso gauza basikoak ikasten dituzu. Ez duzu hitz egiten egoki ikasten.

P3: Niri gehien kostatzen zaidan hizkuntza euskara da, batez ere, klasean ematen den moduan ez dudalako egoki ikasi. Ingelesarekin, aldiz, txikitatik erraztasuna izan dudala esango nuke. Ondo ulertzen dut, txikitatik joan izan naizelako akademia batera eta atzerrira bidaiatu dudalako familiarekin. Euskararekin niri gertatzen zaidana edo bizi dudana gainerakoei ingelesarekin gertatzen zaienaren antzekoa litzateke.

P5: Nire kasuan bi hizkuntzekin izan ditut zailtasunak bai. Eta oinarrian hasten da, hizkuntza ezagutu behar da hitz egin ahal izateko. Eta euskararekin berdin gertatzen da. Leku batetik bestera ezberdin hitz egiten da. Baina arazorik handiena bien oinarrian dago, hizkuntza horiek irakasten dira azterketa bat gainditzeko.

Norberak hizkuntzei hautemandako erabilgarritasun-mailaren ustea (%)

Batez bestekoa
1-5 artean




Erabilgarritasun-maila:

P1: Nire kasuan izan naiz betidanik klaseko bakarra euskara hitz egin izan duena, eta orduan ohitu nintzen euskaraz hitz egiten nuenean ez zidatela bueltan euskaraz hitzik egiten. Orduan, jada, beste batekin hitz egiterakoan askotan joera dut gaztelaniara jotzekoa. Ba, jada, buruan sartuta dudalako erdarara joango garela. Askotan saiatzen naiz euskaraz hasten, edo harremanak euskaraz egiten, baina gero mantentzea kostatzen da.

P2: Eta gero saiatzen zara norbaitekin euskaraz egiten, erdaraz ohituta dagoenarekin, eta gelditzen zaizu aurpegi batekin... «zein zara zu?». Euskara gero eta gutxiago entzuten da kalean, gero eta gutxiago saiatzen zara hitz egiten, esaten diozu zure buruari: «halako erantzuna jaso eta zergatik egingo diet euskaraz?». Gaztelaniarekin bai ez dudala arazorik ikusten, akaso zenbait herritan euskaraz egin behar dela ikusten duzu, adibidez Goierrin, euskaraz hitz eginda bai ala bai euskaraz erantzungo dizutela. Orduan, lekuaren arabera kalkulatu duzu, badakizu norekin non zer hizkuntza hitz egin.

Hizkuntza bakoitzari emandako garrantzi-maila (%)

Emaitzak



Hizkuntza bakoitzari emandako garrantzi-maila

P1: Iruditzen zait ingelesak izugarrizko pisua duela. Frantzian adibidez, frantsesez ez badakizu, ingelesez komunikatu zaitezke edo Indian ere bai urdua ez badakizu ingelesez ere komunika zaitezke. Orduan, ingelesak komunitate izaera sortzen laguntzen du, munduan zehar askorekin hizkuntza horrekin komunika zaitezkeelako.

P3: Bai, nazioarteko hizkuntza da.

P1: Oso garrantzitsua iruditzen zait, baina gertutasunagatik euskara.

P4: Bai, ni ados. Ingelesa orain garrantzi handia hartzen ari da, baina niretzat euskarak eta gaztelaniak garrantzi handiagoa dute.


P2: Nik uste dut ingelesari akaso euskarari baino garrantzia handiagoa ematen zaiola.

(Gainerakoek baietz diote).

P2: Badirudi garrantzitsuagoa dela ingelesa menperatzea euskara baino. Gero ikasketetan ematen du pareko jartzen dituztela.

Nortasunaren eraikuntzan hizkuntza-identifikazioa (%)

Emaitzak



**Batez bestekoa
1-5 artean**

■ Oso txikia ■ Txikia ■ Ertaina ■ Handia ■ Oso handia

Año LVI. urtea
137 - 2024
Urtarrila-ekaina
Enero-junio



FONTES LINGVÆ VASCONVM

STVDIA ET DOCUMENTA

SEPARATA

**Etorkizuneko irakasleak
eta euskara: identitate eta
ikuspegi linguistikoak
aztergai**

Mikel Gartziarena



Eskerrik asko!

Etorkizuneko irakasleen ikuspegi eta identitate linguistikoak: hizkuntza-erronkak prospektiban

Ikertzailea: Mikel Gartziarena

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU), Hezkuntza,
Filosofia eta Antropologia (Donostia)

Harremanetarako: mikel.gartziarena@ehu.eus

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

DREAM
Donostia Research group on
Education and Multilingualism



*Lan honek Arabako Foru Aldundiak Arabako Lurralde
Historikoan euskararen erabilera ikergai duten ikerketa
lanak sustatzeko 2022ko Henrike Knörr ikerketa-beka
lehiaketako diru-laguntza jaso du [02401.G/335021/48000021]*